

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 258. zenbakia. 2017ko uztaila

Jai Batzorde Feminista



**Santixauak berdintasunean
gozatzeko**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Dorleta Vidal,
Estibalitz González
eta Ekhi Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ermuko Jai Batzorde
Feminista.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentín Mugarza,
eta Jabí Vidal.

ARGAZKIAK:

Ermuko Jai Batzorde
Feminista,
Ermua BHI,
Amaia Arginzoniz,
Juankar Andres,
Jon Montoya,
Xabier Ciarsolo,
Iraile Hertz Klinika,
Ermuko Emakumeen
Asanblada,
Estibalitz González,
Txabi Arnal,
Valentín Mugarza,
Jabí Vidal,
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Amaia
Arrondo eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.


*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Aurrera (Entzuteko: www.alboka.es)

Aurrera
guztiok aurrera,
atzera ez joateko
abestu daigun:
aurrera atzera
ezkerra eskuma
aurrera atzera.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Jon Montoya (Ingalaterra)	ERREPORTAJEA 16-17 Ermuko Jai Batzorde Feminista
ELKARRIZKETA5-7 Txabi Arnal, idazlea	ERMUAN ZER? 18 Ermua BHI-ko langileen mugimendua
MALLABIAN ZER?8-9 Juankar Andres eta Ander Izagirre	IRITZIA 19 Hirian erlojua, mendian denbora
MOTZEAN 10 Lanpostu bat betetzeko lan deialdia	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN 12 Ermuko Emakumeen Asanblada	ZORION-AGURRAK21 Saldu, erosi edo agurtu
SANTIXAUETAKO GEHIGARRIA 11-14	ABUZTUKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Jon Montoya

Jatetxe batean egiten du lan eta bertan ematen du egunaren denbora gehiena, baina Jon Montoya pozik dago Elsenhamen (Ingalaterra). Inoiz ez zuen imajinatzen bertan biziko zenik, baina gustura bizi du esperientzia hau. Bertako ohiturak bere egiten saiatzen ari da, nahiz eta gauza batzuetan kostatzen zaion. Berarentzat, onena bertako jendea da.

- Noiz joan zinen Ermutik? Zergatik?

1997ko otsailaren 24an. Ez dut ahaztuko, nire bizitzako egun gogorrenetako bat izan zelako. Sasoi hartan umeak ginen eta ez genuen gauza onik egiten. Nire arreba Mallorcan bizi zen eta haurdun jarri zenean berarengana joan nintzen. Erabaki zaila izan zen, baina gaur egun asko eskertzen diet arrebari eta amari erabaki hori hartzera bideratu izana.

- Nola imajinatzen zenuen Erresuma Batua?

Sekula ez nuen imajinatu. Erabaki zoro eta presazkoa izan zen, inoiz ez nuen pentsatu Ingalaterran amaituko nuenik. Ez neukan aurreiritzirik, baina beldur pixka bat bai, ez nekielako ingelera z ondo egiten.

- Asko harritu zintuen tokiak?

Ez nuen espero bertan aurkitu nuen. Aldaketa handia izan zen ohitura, klima eta elikadura aldetik, ez horrela jendearen partetik. Jendea goiz hasien da lanean, goizeko 5:00etan euretako asko, eta goiz amaitzen dute baita ere. Denda eta tabernak ere goiz ixten dituzte. Jateko orduan ere ordutegiak oso ezberdinak dira. Nolako gosea pasatzen dudan! Asko gosaltzen dute, baina janaria oso txarra da nire ustez

(babarrunak tomatearekin, arraultzak, saltxitxak, hirugiharra eta black puddinga, odolostearen antzekoa, baina askoz ere txarragoa. Urte bi eta zortzi hilabete daramatzat hemen eta ez naiz horretara ohitzen. Nik kafea hartzen dut eta kitto. Gero, 12:30ak aldean bazkaltzen da eta 15:00etan tea gailatekin hartzen dute. Afaria 18:00etan izaten da orokorrean, goiz oheratzen direlako, baina nik ez dut lortzen. Eguraldian pentsatzearekin bakarrik depresioa sartzen zait. Euri asko egiten du, hotza eta zerua beti dago estalita. Neguan gabaz izaten da arratsaldeko 16:00etan.

- Zergatik diozu jendearekin ez duzula aldaketa handia somatu?

Esker oneko hitzak besterik ez ditut hemengo jendearekiko. Ez dakit zorte handia izan dudan, baina asko lagundu didate hona egokitzeko eta ingelera ikasteko.

- Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Mallorcan jatetxe ingeles batean egin nuen lan eta zerbait nekiela uste nuen, baina hona heltzean ez nintzen ezertaz enteratzen. Oso azkar hitz egiten dute eta gaizki pasatu nuen hasieran, baina denbora kontua izan zen.



- Noiz egon zara Ermuan azkenengoz?

Gabonetan izan nintzen nire seme-alabekin, ama eta arrebari ezustekoa emateko. Irailean berriz bueltatuko naiz seguru aski.

- Etorkizunean Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Galdera zaila da. Ez dakit. Gustatuko litzaidake, baina ez dakizu bizitzan zer gertatuko den, beraz, hobe da momentua bizitzea eta gozatzea.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Txabi Arnal, idazlea:

“Ondo pasatzeko, gozatzeko eta sentitzeko irakurri behar dute umeeek”

Gailurrean dago Txabi Arnal. Literaturaren olatu ona harrapatu du idazle ermuarrak eta, urteetako lanaren ostean, esker onaz gozaten ari da. Lau liburu argitaratu ditu azken zortzi hilabeteotan eta beste lau ditu 2017/2018 denboraldian ateratzeko prest. Hori gutxi balitz, beste bi ditu bidean. Hezkuntza eta Kirol fakultatean irakasle ari da lanean. Literatura arloan momentu gozoa bizi duen arren, ez zaio burutik ere pasatzen idazteaz bizitzea. Berak idazten gozaten du, irakurleak gozarazi nahi dituen moduan.

- Lau liburu argitaratu dituzu azken zortzi hilabeteotan. Sormen emaria ezin etenda zabiltza?

Liburua noiz idazten eta argitaratzen duzun ez da matematikoa. Obra bat idatzi, onartu eta argitaratzeko orduan ez dago eperik. Gertatzen dena da azken bi urte hauetan urtero hiru lan argitaratu ditudala, baina horrek ez du esan nahi urte hauetan idatzitakoak direnik. Adibidez, 'Hodeietan' lana iaz idatzi nuen, baina 'El arca de Noelia' orain dela hamar urte. Aspaldian idatzitakoari etekina ateratzen diot orain. Ez dakit moda kontua den, orain dela hamar urte nik idatzitakoa orduan argitara ematen zena ez zela eta orain ordea bai... ez dakit. 2016an Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzaren saria jasotzeak gauzak aldatu ditu, egia

esan. Lehen hogei ate jo behar nituen bat irekitzeko, eta momentu honetan ate guztiak zabaltzen dizkidade. Horrek ez du esan nahi nire proposamen guztiak argitaratzen direnik, baina leku guztietan entzuten naute.

- Azken boladan argitaratu dituzun liburuek ildo bera jarraitzen dute?

Ez. Idazten duzunean, musika egin edo margotzen duzunean moduan, zure faseak dituzu, eta baliteke garai batean ilunago idaztea, beste batean alaiago. Nik badaikit sasoi bakoitzean zer idazten nuen eta ikusten dut faseak izan ditudala, baina hori ez dator bat argitaratzen den ordenarekin. Erregistro ezberdinak probatzen ditut, eta pozgarria eta aberasgarria da hori. Ez litzaidake gustatuko nire obra genero edo gai batean sailkatzea.

“Ez litzaidake gustatuko nire obra genero edo gai batean sailkatzea”

- Nolakoa izaten da zure sortze prozesua?

Enkargu moduan ez dut idazten. Hori garrantzitsua da, sortzeko askatasun osoa daukadalako. Idaztetik bizi ez naizelako gertatzen da hori. Hezkuntza eta Kirol fakultatean irakaslea naiz eta horretatik bizi naiz. Idaztea zaletasuna da niretzat, izugarri gustatzen zait idaztea. Idazle batzuek idazten dute nahi dutena eta nahi ez dutena. Zergatik? Jan behar dutelako. Sortze prozesuari dagokionez, abiapuntu bat behar dut. Gero ipuinari uzten diot, berez sortzen da. Idazten jartzen naizenean ez daukat liburu osoa buruan, abiapuntua eta pertsonaiak edo protagonista nagusia soilik. Hortik aurrera edozer gauza gerta liteke. Batzuetan ipuin ganberroa da eta beste batzuetan ipuin iluna, baina idazten duzunera arte ez dakizu. Norberaren momentuak eragina duela pentsatzen dut. Abiapuntu eta pertsonaia berekin zure bizitzako momentu batean edo beste ipuin ezberdinak irten daitezke. Abiapuntu eta pertsonaia erakargarriak ditudala pentsatzen dudanean, aurrera eramaten saiatzen naiz eta, burugorria naizenez, helmugara iristen ahalegintzen naiz.

- Ilustrazioek paper handia daukate zure lanetan. Zergatik?

Nobela txiki batzuk ere idatzi ditut, baina albumean aritu naiz batez ere. Istoria bat sortzeko irudia eta testua uztartzen diren genero literarioa da albuma. Testu idatzia zein irudiek kontaktzen dute bertan, eta kontaketa bien artean eraikitzen da. Niretzat oso erakargarria da. Batetik, nahiz eta nik aginte ahotsa izan, sortze prozesuan %100ean bakarrik ez nagoelako. Bestetik, idazterako orduan nik idazten dut argumentua, baina nik pentsatzen dut zer den testu idatzia kontatu behar duena eta zer kontatu behar duten irudiek. Beraz, bi koloretan idazten dut. Oso polita eta erakargarria da, irudiak ere irakurri behar ditugulako. Irudiak irakurtzen ez badira, ez duzu liburua %100ean ulertuko. Idazkera modernoa da oso, irudiaren garrantziarengatik, eta nire ideiak partekatu eta negoziatzeko aukera ematen dit. Idazleak bakarrik sentitzen gara sortze prozesuan, baina irudigile batekin lanean bazabiltza, bakardade hori desagertu egiten da.

- Ondo pasatzeko irakurtzea aldarrikatu izan duzu. Irakurtzerako orduan ez dugu ondo pasatzen?



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012 ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELLETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMA 3-945170563
 ERMITA

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Usetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Nik oso ondo pasatzen dut irakurtzen, baina zalantza handiak ditut umeekin. Testu didaktiko larregi daude umeentzat. Irakurketak duen konpetentzian fijatzen gara askotan (bideokontsolak, telefono mugikorrak, eta abar) eta esaten dugu horren aurrean ez dagoela ezer egiterik. Nire iritzi ez da horrela. Hori aitakia da. Egia da konpetentzia handia eta gogorra dela, baina guk gauzak ondo egin behar ditugu eta askotan ez ditugu ondo egiten. Balio jakin batzuk hartzeko hau eta bestea irakurri behar dutela aipatzen da beti. Ez. Ono pasatzeko, gozatzeko eta sentitzeko irakurri behar dute. Pisu gehiago ematen diogu ikaskizunari balore literarioari baino. Umea ez da tontoa eta testu horiek aspergarriak izaten dira. Umeek ez dute irakurtzen konpetentzia handia delako? Neurri batean bai, baina askotan umeek ez dute irakurtzen bere gustuko testuak aurkitzen ez dituztelako

edo eskaintzen dieguna oso aspergarria delako. Oso modan daude emozioak lantzeko liburuak. Nik pikutara bidaliko nituzke. Literatura onean beti egon dira emozioak. Zer saldu nahi digute orain? Idatzi literatura ona eta, horrela bada, emozioak agerian utziko dituzu. Halakoak entzuten ditudanean amorrua ez, tristora ematen dit.

- 'Hodeietan' liburuak politikoki ez zuzena dela aipatu izan duzu, ganberroa dela. Zuzentasunaren burbuilan sartu ditugu umeak?

Gehiegi babesten ditugu umeak. Haur literaturan heriotzari buruz egin nuen nire tesia eta askotan entzun behar izan nuen umeentzat gai egokia zen edo ez. Nire erantzuna beti izaten zen: "Ba al dago hori baino gai naturalagorik?". Sexua eta heriotza ikutatu egiten ditugu. Kontua ez da egokia edo ez egokia izatea, baizik eta nola kontatzen dugun. Umeak azkarrak dira eta ondo esplikatzeko

"Idaztea zaletasuna da niretzat, izugarri gustatzen zait idaztea"

diegu, ondo ulertuko dute. Beldurra galdu behar dugu. Umeei gustatzen zaie eta, gainera, umeen eskubidea da horrelako gauzak jakitea. Modu literarioan gai guztiak jorratu daitezke. Umeak babesten ditugula pentsatzen dugu, baina ez da horrela, ukatzen diegu, eta ukatzea eta babestea ez dira gauza bera.

- Euskaraz zein gaztelerazko liburuak idatzi dituzu. Horrela eskatzen dizute edo horrela irteten zaizu?

Euskaraz idatzen hasi nintzen, baina albumaren munduarekin maitemindu nintzean ikusi nuen euskaraz ia ez zela egiten, itzulpenak direla batez ere. Beraz, horrek gaztelerara eraman ninduen. Bietan moldatzen naizela us-te dut eta horrela egiten dut

gaur egun. 25 urte daramatzat liburuak argitara ematen eta mundu hau ezagutzen dut. Kontua ez da hizkuntza, baizik eta ideia bat daukadanean zein argialetxeri egokitzen den pentsatzen dudala. Horren arabera, euskaraz edo gazteleraz idatziko dut. Hala ere, nik albumak egitea oso gustuko dut eta Euskal Herrian albumak egitea ia ezinezkoa da. Hemen ez dago albumarekiko kulturarik eta, bestetik, albumaren formatua garestia denez, zaila da Euskal Herrian errentagarria izatea.

- Liburuak argitaratzeko erritmo honi jarraituko diozu?

Bai. Lau liburu ditut karteran, hitzartuta, eta 2017/18 denboraldian argitaratuko dira. Horietako bat iaz idatzi nuen eta besteak zaharragoak dira. Gero, beste bi liburu ditut bidean. Oso pozik nago eta behar dut. Ailegatuko da atsedena hartzeko momentua, heltzen bada, baina oraindik ez dut gelditzeko sentazioa sentitu. Egoera honetara ailegatzeko hogeitau urte pasa behar izan dira eta hamaika (edo hamaika mila) ezezko jaso ditut bidean. Liburu bat argitaratzen dudanean ospatu egiten dut, beti, eta momentua aprobetxatzen jarraitu nahi dut. Hala ere, ez dut pentsatzen idaztetik bizitzera, inolaz ere.

Ekhi Velar



MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MUGA **KILOKAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

Juankar Andres eta Ander Izagirre “Narrasti eta anfibioak hiltzen baditugu, naturari kalte egingo diogu”

‘Anfioak eta narrastiak Mallabian’ hitzaldia eskaini zuten ekainaren 1ean Juankar Andres eta Ander Izagirrek. 30 bat lagun bildu ziren bertan. “Harrituta geratu ginen jende kopuruarekin, oso arrakastatsua izan zen”, diote biek. Solasaldiaz gain, Andresen argazkien erakusketa egon zen ikusgai. Orain, anfioentzako urmaela egiteko proiektua jarri dute martxan, naturarekiko kontzientzia herrian indartzeko asmoz.



-Ezeztatu beharreko mito eta legenda asko dago anfio eta narrastien inguruan?

Ander: Milaka mito eta legenda dago euren inguruan, eta Mallabian eskaini genuen hitzaldian azaldu genituen horietako batzuk. Adibidez, esaten da euren azala pozoitsua dela, eta egia da euren azalak pozoitu puntu bat daukala, baina guretzat arrisku gabea da. Mukosekin kontu izan behar da, baina ez litzaziguke ezer gertatuko.

Juankar: Oso deigarriak diren arrabioek pozoitu puntu hori daukate azalean, eta lehengoan lagun batek kontatu zidan bere aitak arrabio bat harrapatzen zuenean hil eta erre egiten zuela. Pentsatzen dut lurra purifikatzeko edo egiten zuela hori, erritual antzekoa. Derrigorrezkoa zen.

A: Anfioek txistu egiten dutela ere gezurra da. Eta bestetik, sugeek behie esnea edaten dietela ere esan ohi da eta hori ere gezurra da.

J: Esaten da, gainera, behien esnea ez ezik, emakumeena ere edaten dutela eta orain dela gutxi entzun izan dut egia dela, baina ez da horrela.

A: Sugeekin mito asko dago. Esaten da gorpil itxura hartzen dutela, buztana kiribilduta, aldapan behera pertsonen segika joateko. Beste gezur handi bat. Sugeek ihes egiten dute gizaki baten aurrean, beldurra diotelako. Gizakia ikusten dutenean geldituztena dute lehena, guk hura ez ikusteko, edo bestela ospa egiten dute. Beste mito bat da ekologistek sugeak helikopteroetatik askatzen dituztela sugeak birpopulatzeko eta hori urtero entzuten dudana kontua da. Hori egin ahal izateko sugeen haztegiak egon beharko lirakeke hemen, eta ez daude; eta helikoptero batetik botata sugeak bizirik irtengo direla pentsatzeak ez dauka zentzurik. Demaseko astakeria da.

J: Facebooken marrazkiak

ikus daitezke, non helikopteroetatik sugeak botatzen diren. Imajina zenbat tokitan bota beharko lirakekeen sugeak!

A: Pena da jendeak gauza horiek sinestea, nahiz eta astakeriak izan.

-Zergatik uste duzue daude la hainbeste mito?

J: Sugeei diegun beldur-rerengatik izango dela pentsatzen dut, nahiz eta beldur hori funtsatua den. Sugorri batek min egin ahal dizu, eta nahiz eta min handia ez izan, besoa infektatu daiteke eta agian hil egin zaitezke, kasuren batean gertatu den bezala, baina penintsulan pertsona gehien hiltzen dituen animalia pozoitsua erlea da eta inork ez die izugarritzko beldurrik.

A: Estatistikek diote urtean Espainiar estatuan sugorrien 150 ziztada daudela eta horietatik bakarra dela hilkorra. Beste animalia batzuekin konparatuz, alde handia dago.

J: Sugorri batek ziztatzeko kasualitate piloa eman behar dira denbora berean. Sugorria dagoen horman eskua sartu eta bera ukitzera joan behar zara, nahigabe. Oinez basoaz, botekin-eta, berak alde egingo du. Beraz, kasualitate handiz zerbait gertatu beharko litzateke sugorri batek ziztatzeko.

A: Gainera, alergikoa izan eta ospitalera berandu joan behar zara zerbait larria gertatzeko. Hori sugorriaren kasuan, baina pozoirik ez daukan espezie asko dago eta fama txarra daukate horiek ere. Eskuan hartuta ere, nahiz eta ezin diren hartu, haginka ere ez dizute egiten. **-Baina gizartearen zati handienak beldurra die.**

A: Noski, baina beldur hori sortu egin da. Bi arrazoi daude beldur hori ulertzeko. Batetik, arrazoi genetikoa dago. Belaunaldietan atzera eginez gero, Afrikatik gatoz. Han benetan pozoitsuak diren sugeak daude, haginka eginez gero

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

DROGETEN ITTURI

Publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale beheka, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

hiltzen zaituztenak, eta uste da arrazoi horregatik sugeei beldurra edukitzeko joera daukagula, armiarrei diegun bezala. Bestetik, bigarren teoria batek dio beldur hori txikitatik lantzen dela. Batuta doaz teoria biak. Txikitatik, nahigabe, sugeak arriskutsuak direla esaten duten mezuak jasotzen ditugu etengabe. Jendeak sugeak hiltzen ditu eta niri amorrua ematen dit, baina kontua da benetan beldur hori barrenean daukala jendeak eta horregatik hiltzen dituela.

J: Niri ere kostatu egiten zait sugeak hartzea, ez ditut lasaitasunez hartzen. Minik egiten ez dutela jakinda ere, kostatzen zait, barrenean sartuta daukadan zerbait delako. Gainera, ondo tratatzen jakin behar dira, ezin diezulako minik egin. Erasotuta sentitzen

direnean defenditu egiten dira eta orduan egin ahal dizute zerbait. Hemen inguruan daukagun sugerik handienak hozka egiten badizu ere, ez dizu kalterik egingo.

A: Ezjakintasun kontua da. Suge mota batzuk euren burua defenditzeko eraso egin dezakete, baina txolarre batek ere eraso egingo dizu bere burua defenditu nahi badu. Gero, suge mota batzuek ez dizute ezer egingo, nahiz eta eskuan hartu.

-Noiz erasotzen du suge batek?

A: Lehenik, bera hor dagoela inor ez ohartzen saiatuko da. Mendira goazenean suge askoren albotik pasatzen gara eta ez gara konturatu ere egiten. Beste batzuetan, ahalik eta azkarren ihes egiten saiatzen dira.

J: Beraren presentziaz ohartu garelako sumatzen badu, hor dagoela abisatzen du zarata eginez, eta zuk zerbait egingo badiozu eta beste erremediorik ez badu, premia momentu batean, defenditu egingo da. Baina hori ez da hozka egitea. Niri bizitza osoan gehienetan hozka egin didan animalia txakurra izan da eta eurei diet beldur gehiena, sugeei baino gehiago, sugeek alde egingo dutela dakidalako.

A: Ni suge bila ibiltzen naiz argazkiak eta abar ateratzeko, eta konturatzen naiz zein zaila den suge bat harrapatzeta.

-Sugeak bakean uztea aipatu duzue, ez hiltzea. Zein onura dakartzate?

A: Sare trofikoaren parte dira. Eurek harrapakin batzuk jaten dituzte (saguak eta abar), eta harrapakin handi batzuk narrasti eta anfibioez elikatzen dira. Beraz, hortik kentzen badituzu, naturari kalte egingo diozu. Baserrietan, adibidez, izurri kontrol biologikoa egiten dute.

-Mallabian hitzaldia eskaini zenuten. Zerbait gehiago egiteko asmoa daukazu?

J: Hitzaldia eskoletara eramatea da asmoa. Gazteen artean dago aukera bakarra.

Heldu batzuek sugeak ez hiltzea lortu dezakegu, baina gazteekin gauza gehiago lortu ditzakegu. Hezkuntza da oinarria.

-Mallabian anfibioentzako urmaela egiteko proiektua dago. Bideragarria ikusten duzue?

J: Udalarekin hitz egin dugu horren inguruan eta bikain portatu dira gurekin. Hasierran narrasti eta anfibioen argazki erakusketa egitea proposatu zidaten, gero hitzaldia ematea, eta horregatik kontaktatu nuen Anderrekin, bera oso aditua delako. Hortik irten zen eskolatik hurbil anfibioen urmaela egiteko proiektua. Umeek urmaelaren sorkuntzan eta mantentzean parte hartzea da asmoa. Bizitza nola agertzen den, eta natura hor dagoela eta gu bere parte garelako ikusiko dute. Naturarekin elkarbizitzen eta bere parte direnak ez hiltzen ikasiko dute.

-Egingo da, beraz?

J: Bai. Non egingo den ikusi dugu eta martxan dago kontua. Bestetik, urmaela egiteko Udalak enpresa bat kontratatu barik, herritarren artean auzolanean egitea da gure asmoa. Horrela gehiago aguantatuko duela uste dugu, herriak bere egingo duelako.

Ekhi Velar

Argazkia: Juankar Andres.



Modas Candé
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

HERRIKO KIROLARIAK PUNTA-PUNTAN

Peio Goikoetxea txirrindulariak eta Anne Erauskin eskubaloio jokalariek zoriontsu izateko arrazoiak dituzte, bata Euskadiko Txapelkun bilakatu baita berriki eta besteak Eslovenian egingo den junior mailako Europako Eskubaloio Txapelketa jokatu duela. Goikoetxeak Murgian lortu zuen Euskadiko txapela uztailaren 1ean. AMPO taldeko txirrindulariak Lleida eta Segoviako Itzulietan garaipenak lortu ostean, sasoi bikainean dagoela aprobetxatu zuen euripean bere nagusitasuna erakusteko.

Errotabarri taldeko Anne Erauskinek, bere aldetik, Espainiako selekzioaren deia jaso du uztailaren 27tik abuztuaren 6ra jokatu den Europako Txapelketan jarduteko. Beste taldekide baten baja betetzeko azken orduan izan da deitua Ermuko jokalaria.

Santixauetarako berotzen joateko ekintzak

Jai-giroa arnasten da herrian. Santixauak ate joka ditugu eta herriko elkarte eta eragileek ekintzak bete dituzte uztailleko egunak. Euskal Birusa Euskara Elkarte ere ez da geldirik geratu eta hainbat emanaldi eskainiko ditu datozen egunotan.

Uztailaren 19an, adibidez, 'Plaza Irrintzika' saioa egingo da Martxoaren 8a plazan 17:30etatik aurrera. Euskarazko abestiak ardatz hartuta, dantzatu eta kantatzeko aukera eskainiko zaie 4 eta 12 urte bitartekoei. Amaieran, gainera, irrintzia botatzen ikasi eta irrintzika bukatuko dute denek.

Hurrengo egunean, hilaren 20an, 'Hutsa eta doble' taldearen kontzertua egongo da toki berean 2:30etatik aurrera. Kalitate eta eskarmentu handiko musikari bik osatzen dute taldea, Eriz gitarrajoleak eta Maria abeslariak. Intentsitate handiko soinu eta argi ikus-kizuna eskainiko du bikoteak.

Zea Mays, Stai Zitto eta La Pegatina

Santixauen aurreko asteetan egiten den ohiko kontzertuei dagokienez, 'Zea Mays', 'Stai Zitto' eta 'La Pegatina' taldeak arituko dira herrian. Talde bizkaitarrak hilaren 15ean eskainiko du kontzertua Orbe Kardinalaren plazan 23:30ean.

Uztailaren 22an, bestetik, 'Stai Zitto' ermurrak eta 'La Pegatina' talde kataluniarra izango dira protagonista San Pelayoko plazan 22:30etatik aurrera.

Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikarekin elkartasuna

Ermuko Emakumeen Asanbladak Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikarekiko elkartasuna erakutsi nahi izan du, "Granadako Alboloteko espetxean jasaten ari diren onartezinezko diskriminazio matxista salatzeke". Taldeak gutun batean azaltzen duenez, "Agurtzane eta Ainhoa euskal presoek isolamendu erregimena aplikatu diete". 9. modulan dauden emakume presoak komunak garbitzeko betebeharra izatearen kontrako jarrera agertzeagatik zigortu dituzte asanbladak azaltzen duenaren arabera. "Lan horiek egiteko, bestetik, gizonezkoak behartzen ez direnean", salatzen dute.

Ermuko emakume feministek zigorrekin amaitzea eta euskal emakume presoek eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dute, "baita espetxea zuzentzen dutenen jarrera berraztertua izan dadila ere, ideologia matxista eta patriarkala duten estruktura deuseztatuak izan daitezen".

Zure
publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

DROGETEN ITTURRI ITURRI ITURRI
DROGETEN
DROGETEN

aldizkarian

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaurre 2 · Ermua · 943170065

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

ONDO PASA SANTIXA UETAN!



Argazkiak: Xabier Ciarsolo.

UZTAILAREN 24a, ASTELEHENA

- **17:00** Patxi plazan, **JAI-OPARI BANAKETA** Drogomenpekotasan Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocos musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00 / 04:00 DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Pasarela orkestrarekin.

- **23:00 / 2:30** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **ROCK JAIALDIA** Fractality, Lamprea eta Childrain taldeekin.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

KARABIXKA

KARABIXKA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

MOLOKO
cafe lounge



UZTAILAREN 25a, ASTEARTEA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30** Plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURREN-TZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patrioiaren omenez.
- **12:30 HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Harri-jasotzaileak: Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta Aritz Etxebarria. Iparraldeko jokoak: Zelai-Luze eta Karmele Gisasola. Aizkolariak: JErnesto Ezpeleta "Bihurri" eta Jesús Gisasola Julen Aranberri eta Hodei Ezpeletaren aurka.
- **12:30 KALEJIRA** The Joselontxo's txarangaren eskutik.
- **17:00** Aritzmendin **PROFESIONAL ARTEKO ESKU-PILOTA PARTIDAK:**



1. partida: Elordi-Jaunarena Mendizabal Ill-lrusta.
 2. partida: Ezkurdia- Rezusta Altuna Ill-Merino II. Antolatzailea: Ermuko Pilota Taldea.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.
 - **19:00** Orbe kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangarekin.
 - **20:00 LARRAINDANTZA** herrikoia Orbe Kardinalaren plazan.
 - **20:30** Orbe Kardinalaren plazan **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.
 - **22:30** Lurrak taldearen **KALE IKUSKIZUNA** San Pelaioko plazan.
 - **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano show orkestraren **DANTZALDIA**.
 - **23:00 / 4:00** Martxoak 8 plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA** Madrileko Darkrow, Gipuzkoako Stan Garac eta bertako Alexander M. eta Erikss DJekin.



ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**
Kafé & Deliss
Tfo.: 943174612



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
5€ tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...
Tel. 943 17 15 57
ERMUA

ARINKA OINETAKOAK
Andra, ume eta
gazteentzako zapatak
ABARKA ETA ABARKETAK ERE DITUGU
Sexto Centenario, 17
ERMUA (BIZKAIA)
943 174126

infretaberna
Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584





TR. KANTABRIA N°1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)

Mendiola

Jatetxea

tlf: 846 080 086

UZTAILAREN 26a, ASTEAZKENA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
 - **7:30 BARRUS** partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
 - **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
 - **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
 - 12:00 **NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta **SARIAK** entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
 - **13:00** Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
 - 14:00 merkatu plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
 - **18:00 ESKUPILOTA** partidak Orbe Kardinalaren plazan, Ermuko Pilota Taldeak antolatuta:
 - Gazteen 4'terdiko partida.
 - Neskeen arteko partida
- Larrabetzu neska pilotarien elkartearen partaidekin.
- Afizionatuen binakako partida.

- **19:00** Patxin eta Potxinek **PAILAZO IKUSKIZUNA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **19:00 KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19:00 KALEJIRA** Ermuko txarangen esku-tik.
- **20:00 LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **22:30** Tio Teronen semeak taldeak **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaio plazan.
- **22:00 / 4:00** Diamante Show Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **00:30 / 4:00** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **MUSIKA JAIALDIA** Ermuko Black Redding eta Bilboko Atlántida rock taldeekin eta bertako Alexander M. eta Sebita DJekin.




Pub ERZ
Ondo pasa Santixauetan!!




esanline[®]

846 080 010
 Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
 esanline.es



UZTAILAREN 27a, OSTEguna

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30 BARRUS** plazako pilotalekuan.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **10:00 / 11:30** Arrozaren banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** ezagunari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzailea:



- Lobiano Gastronomía elkarte. Laguntzailea: Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarte.
- **11:00** Martxoak 8 plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.
 - **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
 - **12:30 KALEJIRA** Gazte txarngaren eskutik.
 - **14:00** paella lehiaketa-



- ra aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.
- **18:00 ERROMERIA** Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
 - **19:00 KALEJIRA** Gazte txaranga.
 - **19:00** paella lehiaketaren epaimahaiak **IRABAZLEAK** ezagutaraziko ditu eta **SARI-BANAKETA** egingo da Orbe Kardinalaren plazan.
 - **19:15** Orbe Kardinalaren plazan, **AURRESKU ETA LARRAINDANTZA** herrikoia.
 - **20:00 ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.
 - **23:30** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.
 - **00:00 SUZIRIAK** FX pirotekniaren eskutik Ongaraiako parkean. Ondoren **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK**.
 - **00:30 JAIEN AMAIERA** Elsa Baeza abeslariak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

Bitxi-denda Tailor propioa Edoju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Irale Hertz Klinika

“Uda iribarretsua pasaraztea nahi dugu”



Udara begira plan zoragarria dauka Irale Hertz Klinikak. Bezeroen onura eta erosotasunean pentsatuz, pazienteen ongizatearen alde egingo du urteko sasoi honetan ere. Estetika, funtzioa eta osasuna eskutik doaz ahoari buruz ari garenean, eta Iralen arlo guztiak zaintzen dituzte zerbitzu onena eskaintzeko. Uda primeran pasatzeko asmoa du Iralek, irribarre ederrena egiteko sasoa delako.



- Uda iristen denean gure irudia gehiago zaintzeko joera dago. Ahoa ere bai?

Irribarre polita erakusteko sasoi aproposa da uda. Opor garaia hasita, ondo pasatu eta alai bizitzeko une bereziak gertatzen dira udan zehar. Horrela, lasai irribarre egiteko, ezinbestekoa da dentistari bisita egitea. Guk argi daukagu hori eta, gure pazienteei zerbitzu onena eskaintzeko asmoz, abuztuko lehen eta azken asteetan zabalik izango dugu Irale Hertz Klinika. Oporretan irribarre prest eramateko edo larrialdiren bat

suertatzen bada, gure atea irekita egongo dira egun horietan.

- Zein tratamendu gomendatzen duzue udara begira?

Oporretan kanpora bazoaz eta bertan lerden eta dotore ibili nahi baduzu, hortz-zuriketa sasoa da. Gainera, gure bezeroen erosotasuna aintzat hartuz, egunean ordubete besterik eramango ez dizun produktua daukagu eskuragai hortz-zuriketa onena eskaintzeko asmoz.

- Estetika aldetik lan gehiago eskatzen duten zerbitzuak ere eskaintzen dituzue, ezta?

Horrela da. Zure ahoak lan sakonagoa behar badu, estetikan aditua den Marta daukagu gure lan-taldean. Berak kasu bakoitza zehatz-mehatz aztertzen du eta arazoak konpontzeko aukera guztiak azalduko dizkizu. Horren adibide da alboko argazkietan azaltzen den lana (lehen eta orain). Orain dela gutxi egin zen eta egun berean lortu da aldea.

- Hortz-inplanteen tratamendua hitzetik hortzera dabil.

Bai, gaur egun ezinbestekoa da inplantei buruz hitz egitea, batez ere kalean eta hainbat forotan entzuten diren gauzak kontuan hartzen baditugu. Osasun gaia baino azoka txiki-kontua dela dirudi. Hasteko, ezer egin aurretik, hainbat faktore kontuan hartu behar dira pazienteak inplanteak jartzea egokia den jakiteko. Batetik, hezurra edukitzea ezinbestekoa da. Hezurrik ez badauka, beste neurri batzuk hartu beharko

dira hezurra ordezkatzeko. Adibidez, injertoak. Erretzaileen kasuan zailagoa da. Tabakoa ahoaren etsai handia da eta giroa eraldatzen du. Defentsak jaisten ditu hortzak galtzeko arriskua handitzen da.

- Nola jartzen dira inplanteak?

Kirurgia bitartez. Gero, jarri behar diren inplante kopuruaren arabera, prozesua errazagoa edo zailagoa izaten da.

- Eta ebakuntza ostekoa nola izaten da?

Pertsona eta kirurgia bakoitzaren arabera da hori. Zelako lapikoa, halako tapa. Inplante bakarra, adibidez, ez da ia nabaritzen eta ez du egunerokotasuna apurtzen.

- Zein onura dakartzate inplanteek?

Ezin da ukatu emaitzak erosotasuna dakarrela. Satisfakzioa orokorra izaten da. Estetika, funtzioa eta osasuna eskutik doaz eta, halaxe izanda, etorri bisitan eta gustura zainduko zaitugu!



LEHEN



ORAIN



Santixauetan denok gozatzera, seguru!

Barre, dantza eta kantu egiteko egunak dira Santixauak. Jendeak ondo pasatu nahi izaten du, baina denontzat al da horrela? Eraso matxistek presentzia izaten dute han eta hemengo festetan, agerian dagoen orbana da, baina Ermuko Jai-Batzorde Feministak gogotsu, ardurarekin eta sendo egingo die aurre. Beste era bateko jaiak nahi dituzte, denok seguru gozaten dituzten Santixauak.

Iazko esperientzia positiboa oinarri hartuta, hilabeteak daramatza lanean Ermuko Jai-Batzorde Feministak berdintasunezko Santixau batzuren alde. "Gazteen artean arrakasta izan zuen iaz egindakoak", Andrea Diez eta Ander Prol batzordeko kideen berbetan. Aurtengo Santixauei begira, herritar eta herriko kolektibo ezberdinekin elkarlanean garatutako ekintzak antolatu dituzte iazko esperientziaren ondorioetatik ateratako gai eta kezak aintzat hartuz.

Asanblada irekian batzen da Jai-Batzorde Feminista eta 30 bat kide hartzen dute parte bertan, "bakoitzaren denbora eta inplikazioaren arabera". Ermuko aztarna feminista jarraituz, batzordea bere bidea

egiten ari da eta hainbat kolektibo batu dira horretarako: Tratu Onen Aldeko Plataforma, Emakumeen Asanblada eta Kimaira, besteak beste. Horrela, adin guztietako jendea batu da bertan, anitza. "Oso aberasgarria da hori eta ekintza freskoak antolatu ditugu ondorioz", adierazi dute.

Itsulapiko moreak tabernetan

Batzar irekiez gain, lantaldeetan banatzen da batzordea. Sare sozialez arduratzen dena, komunikabideekin harremana duena, kartelak prestatzen dituen, pankartak lantzen ari dena... lantalde bakoitzak bere ardura dauka.

Lantaldeetako bat tabernetan itsulapiko moreak jartzeaz



arduratuko da. Iazko caxa moreak izan ziren. "Bertan mikromatxismoak salatzen ziren, jasandako erasoak paperean idatzi eta bertan sartuz. Gero, Facebooken partekatzen genituen, ikusgai egiteko", azaldu dute. Ekimenak erantzun ona izan bazuen ere, irakurritakoak lan handia dagoela egiteko argi utzi zuen: "Pentsa noraino heltzen diren erasoak, ekintza honegatik guk ere erasoak jasan genituela. Zakilak marraztu zituzten, 'putas' idatzi zuten paperetan... Ikusi genuen asko dagoela egiteko".

Ekintza honekin zerbait potenteagoa egin nahi dute aurtent. "Oraindik ez dugu zehaztu zer egingo dugun, baina erabaki dugu itsulapikoan jasota-

koa Santixauen azken egunean jarriko dugula Facebooken", diote batzordekoek.

Mikromatxismoetan jartzen dute lupa Jai-Batzorde Feministakoek. "Santixauetan ez dago toki segururik eta beldur gabe gozatu beharko genuke". Agresioa zer den definitzen ibili dira eta eztabaidak izan dituzte horren inguruan, baina lortu dute definizioa. "Orain, hori argi edukita, agresio baten aurrean nola jokatu behar den jakiteko protokoloa sortu dugu". Tabernetan zabalduko dute berau eta tabernariet irakurtzea da euren asmoa. "Triptikoak banatuko ditugu, arina izateko. Jakin beharreko guztiaren gauza batzuk azalduko ditugu bertan eta beharrez-



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza

Komentukua 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33




optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

koak diren telefonoak agertuko dira”.

laz egindako lanak kritika onak eta komentario positiboak jaso zituen. “Neska batek esan zigun 16 urterekin eraso latza jasan zuela eta gaur egun, gurea bezalako taldeei esker, enpoderatuta ikusten duela bere burua”. Horrelakoekin, “beharrezkoak” direla ikusi zuten.

Jai Feminista Ateneoan

laz ez bezala, egunean zehar ere presente izan nahi du aurtien Jai-Batzorde Feministak. Santixauek irauten duten bitartean aktibo ibiliko dira, baina uztailearen 26an haratago joan nahi izan dute eta Jai Feminista antolatu dute Eskilarapeko Ateneoan.

Batukada eta trikitixarekin girotutako poteoarekin hasiko dute egitaraua eta “erasoen aurrean aktibo” daudela eraku-

tsiko diote herriari. Gauean, 23:00etan, festa hasiko da.

Ateneoa “gune segurua” izango da, “feminista”. Musika feminista entzuteko aukera izango da, agresiorik ez da onartuko, jolasak egingo dira eta hainbat ezusteko prestatu dituzte antolatzaileek. Gainera, Selfie Lehiaketaren sariak banatuko dira festak iraun bitartean.

Tratu Onen Aldeko Plataforma iaz ere egin zuen Selfie Lehiaketa, eta hilaren 24tik 26ra egongo da martxan. “Ermuan dauden baliabide feministekin hartu behar izango dira argazkiak (kartelekin, jaietan...)”. Gero, argazkiak Facebook edo Instagramera igo behar dira eta Jai-Batzorde Feminista etiketatu.

Eragile Morea

Durangon abiatutako espe-



rientzia aprobeztatuz, Eragile Moreak egongo dira Santixauean. Batzordekoen berbetan, “jaietan denak balio duela ematen du eta eraso sexista asko gertatzen dira”. Horiek ekiditeko, batzordeko kideak Eragile Morea bihurtuko dira eta tailerrak jaso dituzte horretarako.

Agente bat da Eragile Morea, prebentzio agentea. Eraso sexistak ekiditea du helburu eta zaintza funtzioa egiten du, baina ez dira “polizia lana” egiten ibiliko. “Erasoa gertatuz gero, biktima enpoderatuko dugu eta bere alboan izango gara laguntzeko prest”, azpimarratzen dute. Eragileak identifikatu ahal izateko, besoko morea eramango dute.

Herriko jaiak direla presente

daukate batzordekoek, “baina jaiak aproposak dira erreibindikatzeko”. Ermuko gizartean eragin, sentsibilizatu, eta kontzientziazioa eta hausnarketa bideratzea da euren asmoa. Jaietan gizartearen balioak bistaritzen direla uste dute eta apropos ikusten dute eurek bulztatutakoa gauzatzea.

Santixauean egiten diren ekintza guztietan emakumeen balioa errespetatzea aldarrikatzen du batzordeak. “Berebenera, adibidez, emakumeek bertan duten rola ikusi besterik ez dago”, gogorarazten dute. Oraindik gauza asko lantzeko daudela aitortzen dute, baina eurek eman dituzte lehen pausoak.

Ekhi Velar

JAIK FEMINISTAK IZANGO DIRA... EDO EZ DIRA IZANGO

ERASO BATEN AURREAN. PIZTU ALARMA MOREA

OINAK

LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Ermua BHI-ko irakasleak hezkuntzaren kalitatea hobetzeko mugitzen

Ikasleek liburu eta koadernoak batu dituzte eta oporretan daude. Irakasleak, bestetik, ikasturteari amaiera eman eta irailean hasiko den kurtoa prestatzen ari dira.

Zalapatatsuak izan dira azken hilabeteak. Martxoaren 16an eta maiatzaren 16 eta 23an greba egin zuten irakaskuntzako sindikatu nagusiek eta Ermua BHI-ko langile batzuek. Hezkuntzaren egungo egoerarekin kezkatuta daude eta luze jotzeko asmoa daukate euren aldarrikapenak aintzat hartu daitezzen.

“Nahiago genuke greba egin behar ez izana”, diote Ermua BHI-ko irakasleek. Hezkuntza publikoko langile kopurua handitzea, langileen behin-behinekotasuna murriztu eta egonkortasuna handitzea, gelako ikasle kopurua gutxitzea, langileen eroste ahalmena berreskuratzea, ordezkapenak lehen egunetik egitea, bajak bere osotasunean ordaintzea, erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea, eta LOMCE eta HEZIBERRI bertan behera uztea da eskatzen dutena. Hezkuntzaren kalitatea dago jokoan, “Euskal Autonomi Elkargoan hainbeste gorai patu den harribitxia”.

Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuak grebarekin arduraz jokatzeko eskatu zien, ikasleak ez kaltetzeko. “Greba egunak egun galduak bailiran hartuko bagenitu, hiru egun izan dira guztira; eta eurek, sistematikoki, ikasleak gutxienez bost egunez irakasle gabe uzten dituzte ordezkapenak egin behar dire-

nen”. Izan ere, hori da irakasleen aldarrikapen nagusietako bat, ordezkapenak lehen egunetik egitea. “Ordezkapenak bost egunetara hasten direnez, beste irakasleok bete behar ditugu postu horiek. Horrek gainkarga izatea suposatzen du eta, ondorioz, kalitatean eragina dauka”.

Ermua BHI-n 44 egun egon dira ikasleak irakaslerik gabe, “baina praktikan egun gehiago izan dira, eskaera eta abarrak kudeatzen direnerako denbora pasatzen delako”. Sistematikoki horrela jardutea salatzen dute irakasleek. “Are gehiago ikusten dugunean oso ondo prestatutako irakasle asko hezkuntzan lan egiteko zerrendetan daudela edo zerrendetan sartzeko itxaroten daudela”, azpimarratzen dute.

Enpresa pribatuen jokabidea

Administrazioak antzera jokatzen du kontu propioengatik hartutako bajen kasuan. “Gure



eskubidea da hori eskatzea. Ez dugu horregatik kobratzen eta behin baino gehiagotan gertatu da inor ez dutela bidali baja horiek betetzera. Beraz, administrazioak bi egunetako soldata aurrezten du”. Joera hori salatzen dute irakasleek, “enpresa pribatuen moduan” jokatzen dutelako euren ustetan. “Urtero inbertsio txikiagoa egiten da hezkuntzan, plangintzan murrizketak zehaztuta dituzte eta bide horretan jarraituko dute, harro gainera, eurek superabita egon dela lau haizetara zabaltzen dutelako”, diote Ermua BHI-tik.

Baina zein da horren prezioa? “Hezkuntza inbertsio moduan ikusi beharko litzateke. Hezkuntzaz ari gara! Herrialde analfabetoa nahi al dute?”. Hezkuntzaren kalitatea bermatu nahi bada, irakasleek ez dute apropos ikusten ikasgeletan 25 ikasletik gora egotea, ezta hezkuntza sarean garatzeko programak sartzatzen dituzten bitartean, geletan ordenagailu bakarra egotea.

Jarralpena duen mugimendua

Euren lan-baldintza eta soldatak ere mahai gainean jarri dituzte irakasleek. “2012an %5-eko jaitsiera egin ziguten soldatan eta, gero, izoztu eta aparteko ordainsariak kendu zizkiguten (orain bueltatzen ari dira, baina oso poliki)”. Gainera, irakasleen behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna salatzen dute. “Ikastetxe batek nola egingo du hezkuntza proiektua egoera honetan?”, galdetzen dute.

Irakasleen aldarrikapenak onarpena izan dute gurasoen artean. “Behintzat ez dugu kontrako jarrerarik ikusi”, adierazi dute. Irakasleen artean ere grebak jarraipena izan du eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eurekin eseri ezean, horrela jarraituko dutela diote. Irakasle, hezitzaile eta hezkuntza zentroetako langileak ez dira geldirik geldituko, etorkizuna dago jokoan.

Ekhi Velar

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Hirian erlojua daukazue, mendian denbora daukagu

“Slow mountain” Juanjo Garbizu mendizaleak idatzitako liburu baten izenburua da. Mendian lasaitasun eta patxadaz ibiltzean oinarritutako filosofia, gailur berriak ezagutu eta ezagunak berriro ere biziz aritzea. Azken urteetan sortutako mendiko lasterketa eta muturreko frogek mendizalearen sena bera ere zalantzan jarri eta hari buruz gogoeta egitea beharrezkotzat jo du idazleak.

Batzuek patxadaz eta lasai-lasai hartzen dute mendi irteera, ardo bota lepoan hartuta, hamarretako eta guzti. Beste batzuek kirola egiteko aukera paregabea ikusten dute mendian, gora eta behera korrika ibiltzeko aukera, landa, baso zein harri arteetan. Mendi irteera modu desberdinean bizi arren, batzuek zein besteek sentipen antzerakoak dituzte mendian.

Azkenaldian, mendira ere heltzen ari da hiriko presa. Horren adibide dira lasterketak, eta egun berean ahalik eta tontor gehien igotzen ahalegintzen diren mendizaleak. Hirian egiten

dugun bizitza frenetikoari aurre egiteko, parentesi edo lasaitasun tarte baten bila joaten ginen mendira. Azken urte hauetan, joera hori aldatu egin da, eta mendian korrika egiten duen belaunaldi berri batek indarra hartu du.

Nire ustez, erlojuarekiko dugun esklabotzaren eta presaren antitesi gisa ulertu behar litzateke mendia, eta mendira korrika joaterakoan ez da horrela egiten.

Bestelako eredu bat proposatzen du liburuak eta aholku batzuk proposatzen dizkigu:

Mendi batera igotzen zarenean, noizean behin gelditu, altxatu burua eta disfrutatu paisaiatz, soinuaz eta usainaz.

Ahal baduzu goiz jaiki, egun osoa aurretik edukitzerakoan, erlaxatuago joan zaitezke eta gehiago disfrutatu-ko duzu.

Aprobetxatu eta ahal bada, tontorrean, aranean edo basoan, jan baina jan benetako janaria eta ez barrikak,



Jabi Vidal

gelak, eta abar...han goian denak baitauka zapore hobeagoa.

Taldean norbait atzeratuta badoa, itxaron. Asmoa da denon artean mendiaz disfrutatzea eta ez besteak lur jota uztea tontorrera lehenengo ailegatzeko.

Saiatu mendian gau bat pasatzen, aterpe batean esperientzia polita da, denda baten askoz politagoa eta dendarik gabe izarren artean lo egingo duzu.

Idazleak (eta Nik) mendizaletasun eredu bat aldarrikatzen du, baina ez bestelako ereduak kritikatu; mendian guztiok kabitzen gara eta. (gainera egunen batean agian ikusiko nauzue mendian korrika egiten, ...nork daki!).

“Azkenaldian, mendira ere heltzen ari da hiriko presa. Horren adibide dira lasterketak”

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA

Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

TORREKUJA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuja kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

**MALLABIA
1932**

Argazki hau 1932 inguruan aterata dago Mallaetxebarri baserriaren atarian. Bertan agertzen dira besteak beste: Rosario Milikua, Maria Luisa Milikua, Petra Milikua, Kresen Milikua, Jesusa Milikua, Generosa Gallastegi, Evarista Gandiaga, Maria Zubia, Matilde Abendibar, Julia Abendibar, Maria Bastida, Candida Amillategi, Jabier Lasuen, Juanita San Martin, Isidro Uriarte, Benigno Milikua (Lehioan dagoen mutikoa), Tomasa Milikua, Julia Milikua, Dominga Milikua, Margari Milikua eta abar. Norbaitek zerrendan ez dagoen norbait ezagutzen badu, eskertuko genuke izenak guri pasatzea. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

**ERMUA
1957**

Zezen Eguneako usadioari jarraituz, lagun aldratxoa sardinak erretzen Zerkan, plaza ostean, Herreroneko tozineria eta Berdura plaza arteko zabalgunetxoan. Makurtuta, Santos Bascaran, Miguel Angel Arrieta eta Tomás Uriarte. Tente, pitxarra eusten, Mateo Arrieta eta, suari begira daudenen artean, Candido Unamuno, Pedro Gartzia, Jose Onandia... Eskuman eta txapela buruan Jose Cordón, Ermura etorri zen lehenengoetariko errioxarra; eskumarago Enrique Echepeare, José Antonio Telleria...

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKO

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



Abuztuaren 20an
Zorionak Lexuri Muxu handi bat etxekoen partez. Ondo pasa zure hirugarren urtebetetzean!



Uztailaren 18an
Zorionak Unai zure bigarren urtebetetzean! Osaba, izeba eta zure lehengusu Amairren partetik muxu handi bat! Oso ondo pasa!



Uztailaren 4an
Zorionak txapeldun! Bi urte zoragarri izan dira. Asko maite zaitugu. Zure gurasoak.



Uztailaren 3an
Zorionak aitaxo! Urtebetetze zoragarria igaro dezazula. Muxu asko Aimar eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu!



Uztailaren 14an
Zorionak Amaia, urtetxo bat! Patxo handi bat Aitor eta etxeko guztien partez.



Uztailaren 4 eta 12an
Zorionak Martin zure 1. urtebetetzean eta Paula 10. urtebetetzean!



Abuztuaren 3an
Zorionak Aner zure 7. urtebetetzean!!! Muxu asko etxekoen partez.



Uztailaren 26an
Zorionak Jonathan zure lehengo urtebetetzean. familiaren partez.




uztailaren 6an
Zorionak Beñat zure 8. urtebetetzean! Etxekoen partez.



Uztailaren 10ean
Zorionak Luken zure 6. urtebetetzean! Etxekoen partez

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com
Azken eguna: Irailaren 20a.



Abuztuaren 25 eta 27an
Zorionak Aner eta Iraia !! Oso ondo pasatu ! Mila musu biontzat !!



Uztailaren 26an
Zorionak Lorea!! Gozatu zure egunean! Musu asko zuretzat!!! Maite zaituztegu!!



Uztailaren 27an
Zorionak Martxel! Oso ondo pasa zure 8. Santixauetan. Muxu asko!



Abuztuaren 10ean
Zorionak June, familia guztiaren partez. Muxu potolo bat!!!



Pello Mugarzak, "Gure Pellok", 60 urte biribil eta oparo bete barri! Beste horrenbeste etorri baietz? Pastelak? Apartak, txo! Ondo-ondo bizi aurrerantzien be! Mallebiko irakasle guztien partez, patxuek.

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ervailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak


Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

UDAKO ZINEA

Abuztuaren 2an:
Un monstruo viene a verme.



Abuztuaren 7an:
Trolls.




Abuztuaren 8an:
El hombre de las mil caras.



Abuztuaren 16an:
Rogue One: Una historia de Star Wars.



Abuztuaren 21ean:
Aliados.



Abuztuaren 23an:
Vaiana.



Abuztuaren 28an:
Los del túnel



Abuztuaren 30ean:
La ciudad de las estrellas: La La Land



Emanaldi guztiak
22:00etan izango dira,
Orbe Kardinalaren plaza.
Euria badago, elizaren aterpean.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ALBOKA


**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Etxo-sareak

Tailerra:
Zoarrekko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 30, 3º 48260 Ermua-Bizkaia

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoa
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak **TXIKURIXA** zabalduko dute aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu,
deitu 688632874 telefonora

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

aTaRa ZARaTa!



Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN

Euskal Birusa Elkarte



**Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!**



Helduentzat: 10€



Umeentzat: 8€